



ELANTXOBEKO AMERIKANUEK

Elantxobetarrak, beste euskaldunen antzera, Ameriketara abiatu ohi ziren bizimodu hobe baten bila XIX. mendearen azken urteetatik hasita.

Far Westera joan eta, etorkizun aberasgarria lortzeko asmotan, euron lurra galtzeko adorea izan zuten gure arbasoei omenaldia izan dadila lan hau, ordena alfabetiko zorrotzagatik.

ABOITIZ, Andrés. 11852ko otsailaren 6an Elantxoben jaioa. 1900ean joan zen hara. 1920an Lander Countyn bizi eta urrezuri meatze batean egiten zuen beharrea.

ABOITIZ BASTERRECHEA, José. 1893ko abenduaren 8an Elantxoben jaioa. Juan eta Juanaren semea. 1918an artzain zebilen Metal Sheep Co.n, Elyn, White Pine County, NEV. Salt Lake Cityn bizi izan zen, Utahn. 1922an Stocktoneko, CA, zoroetxe batean sartu zuten. Atzerriratua izan zen.

Egon balego berbaren bat euskal artzainaren bizitza Ameriketako Mendebalde Urrunean definitzeko, *bakardadea* izango litzateke berau. Beraz, agian, Renotik hurbil dagoen monumentuaren izena, hauxe da: *Solitude/Bakardade*.

Gorka Aulestiak, *Sweet Promised Land*, Robert Laxalten liburuaren gaineko ikerlanean, zera azpimarratzen du: “*Los sentimientos de soledad, melancolía, nostalgia, tristeza, y los conceptos de esfuerzo, lucha, peligro, trabajo, subyacen en toda la obra. La soledad del pastor que vive perdido (en algunos casos hasta volverse loco) en las montañas de Nevada donde no crecen más que las artemisas*” (Gorka Aulestia, *Dulce tierra prometida*, Sancho el Sabio).

Zorotasuna, bakardadearen ondorioa, artzainengan piztu zen. Jende bizkorak eta alaiak, uzkurak eta ilunak bihurtu ohi zituen; bakezaleak zakarrak, berriz. *Artzainen gaixoa* omen (bakardadearen zorotasuna): horretan dago istorio honen hastapena.

ABOITIZ IBARRA, Cándido. Elantxoben jaioa, 1866an edo. 1916an artzaina zen Nevadan.



ARAMBARRI, Galo (1874-1951). Elantxoben jaioa, 1874ko urriaren 16an. **Caronia** izeneko ontzian arribatu zen New Yorkera Liverpooletik, 1907ko apirilaren 5ean. Kaliforniako San Frantziskora joan eta, handik gutxira, Idahora arditara. Urtebete eta erdi geroago, 1908ko urrian, emazte Rufina eta alaba Teresa lehorreratu ziren Bostonen. Eurekin batera Natxituko artzain talde bat zetorren eta Galo bizi izan zen Boisera (1008 Idaho St.) bildu ziren. 1910ean, boarding house (hotela) Shoshone-n gobernatzaren zuten. 1918/1920an baserritarra Shoshone-n. 1930ean, leku berean erretiratua zen emaztea eta koinata birekin. Rubyrekin ezkondu (Rufina Garechana), Esperanza eta Maria ziren euren alabak. Galo 1951ko maiatzaren 27an zendu zen Goodingen, Gooding Countyn.

ARAMBARRI, Ramón. Elantxoben jaioa, 1888an edo. Arotza zen hara joan aurretik. Southamptonetik New Yorkera ailegatu zen 1908ko martxoaren 20an **Adriatic** itsasontzian. Renora abiatu eta 1910ean Holz-en egiten zuen lan, Pierce County, Washington.

ARAMBURU, Juan “John”. Elantxoben jaioa, 1877an edo. Itsasgizona zen hara joan aurretik. 1900ean heldu zen. 1920/1930ean San Frantziskon, CA, bizi zen. Itsasontzi batean egiten zuen lan kamarero. Tomasarekin ezkondu (1915ean seme-alabekin etorrita); Maryren (1903), Ramiroren (Ray, 1905, janari-dendako banatzailea eta garaje behargina) eta Carmenen (1909) gurasoak ziren. Eurekin, Antonio Gojeascochea lehengusua bizi zen.

ARANA, Juan Pedro. Elantxoben jaioa, 1883an edo. 1901eko maiatzaren 4an **Campania** izeneko itsasontzian irten zen New Yorkera Liverpooletik eta Kaliforniara abiatu zen.

ARANO, Pedro “Pete”. Elantxoben jaioa, 1866an edo. 1889an ailegatu zen. Humboldt-en, Nevada, bizi zen 1906an. 1930ean, artzain zebilen Denion, Harney County, Oregon.



ARRIANDIAGA, Anastasia. 1892ko martxoaren 22an Elantxoben jaioa. New Yorkera heldu zen **Saint Louis** itsasontzian Cherbourg-etik 1907ko azaroaren 3an. Boiserako bidea hartu zuen, non bere ahizpa Escolástica bizi zen. 1909ko abenduaren 24an Boisen ezkondu zen Marcelino Aldecoarekin (Natxitua). Luis, Fermín, Domingo, Alfonso eta Carmenen ama (denak Boisen jaioak).



ARRIANDIAGA, Escolástica. Elantxoben jaioa 1890ean edo. New Yorkera arribatu zen **La Loraine** baporean Le Havretik 1907ko abuztuaren 24an. Boiserako jo zuen Eulalia Arregui lehengusinarengana. Ondarzarekin ezkondu eta, alargundu zenean,azienda-negozioaren ardura hartu zuen. Aurora eta Richarden ama.



ARRIANDIAGA, José. Elantxoben jaioa 1896ko azaroaren 30ean. 1915ean iritsi zen. Boiseko bizilagun, artzain ibili zen. Jose Alastrarentzat egiten zuen lan 1918an. 1920an Peaceful Valley, Canyon, bizi zen.



ARRIANDIAGA, Juan “John”. Elantxoben jaioa 1894ko maiatzaren 27ean. New Yorkera heldu zen **La Provence** itsasontzian Le Havretik, 1910ko martxoaren 12an. Bert Parisentzat ibili zen kanperero Black Creeken. Boisen eta Canyonen bizi izan zen. 1925ean, nazionalitatea hartzeko tramiteak egiten jarri zen. Urte horretan artzainburu zen Boisen. John Archabalentzat egiten zuen behar.



ARRIANDIAGA, Ricardo “Richard”. Elantxoben jaioa, 1888ko otsailaren 7an. 1917an, itsasgizona izanik, San Frantziskon bizi zen, CA. 1921ean itsasgizon jarraitzen zuen ogibidez, baina Boisen zeukan etxea.

ARRIEN, Eulogio (1898-1965). Elantxoben jaioa, 1898ko uztailaren 21ean. 1916ko martxoaren 10ean ailegatu zen Bordeletik **Chicago** izeneko itsasontzian. Shoshone-n ibili zen artzain sasoi batean, Tom Goodingentzat. Bigarren bidaia egin zuen 1924an Severina Urtizberearekin ezkontzeko, eta harekin itzuli zen Estatu Batuetara. Hayleyn eta Makayn bizi ziren senar-emazteak 1924tik 1929ra. Urte horietan meatzaria zen. 1935etik, eta 1960an erretiroa hartu arte, Carey Sport Shop eta Paris Motela gobernatu zituen. 1945ean alargundu ondoren beste euskaldun batekin, Mairía Teresa Ulaciarekin, ezkondu zen. Hiru seme izan zituen: Louis, Henry eta Nick. Careyn hil zen 1965eko ekainean.

ARGUINZONIZ, Damián. Elantxoben jaioa, 1872an edo. Kalifornian egon zen 1900etik 1915era. 1916an bigarren bidaldia egin zuen. San Frantziskon bizi zen.

ELANTXOBEKO KRISELA



2017 ko udan sortua

8. Zb

ARGUINZONIZ, Antonio. Elantxoben jaioa. Boisen bizi zen.

AREGO, Benito. Elantxoben jaioa, 1871ean edo. Eulalia Arginchonarekin ezkondu zen Markina-Etxebarrian. New Yorkera ailegatu zen Liverpooletik 1902ko azaroan **Bavarian** baporean. Boiseran jo zuen.

1906an, Spanish Boarding House hotela zuzentzen zuen.

Bidaiarako 150 dolar aurreratu zizkion 16 urteko neska euskaldun bati bost dolar ordaintzen zizkion hilean. Neskaren koinatuaren bitartez, José Alastra hain zuzen, Howelleko Spring Valley Ranchen jabekidea, epaitegira eraman zuten kasua (Idaho Statesman, 1908-11-24).

1911ko urrian, bera eta emaztea atxilotu zituzten hotelean legez kontrako jarduerak leporatuta. Antza, prostituta batek gizonak hartzen zituen bertan (Idaho Statesman, 1911-10-22).

1920an, hotel bat gobernatzeko (Modern Rooming House) Boisen (217 ½ South 9th Street). John (1906), Domingo (1908), Antonia (1911), Leonita (1911), Urbano (1913), Francisco (1916) eta Olivoren (1917) aita.

AREGO ARRIEN, Félix. Elantxoben jaioa 1923ko uztailaren 26an. Filadelfiara iritsi zuen **Monte Mulhaceno** eskifaian, tripulazioko kide bezala, 1951ko maiatzaren 4an. Bertan desertatu eta Brooklyneko J & Borean denboraldi batez lanean ibili ondoren, Idahoko bidea hartu zuen. Goodingen ibili zen artzain. Haren nagusiak, Tom H. Goodingek, babestu zuen 1954an egoera normalizatzeko diligentziak hasi zituenean.

AMILLATEGUI, Alejo. Elantxoben jaioa, 1877an edo. **Saxonian** partitu zen Liverpooletik Bostonera buruz 1906ko ekainaren 12an. Winnemuccara, NV, joan zen.

ASLA, Fernando. Elantxoben jaioa, 1914an edo. Liverpooletik, **Caronian** itsasoratu zen New York hiriarri buruz 1907ko martxoaren 26an. San Frantziskorako, CA, bidea hartu zuen.

AZCUENA, Claudio. Elantxoben jaioa, 1882an edo. Emigratu aurretik itsasgizona zen. Cherbourg-etik New Yorkera heldu zen **Saint Paul** itsasontzian 1907ko urriaren 5ean. Bere aita Jose Azcuena DeLamaren, ID, bizi zen eta haraxe joan zen.



BARANDICA, Ángel. Elantxoben jaioa 1882ko maiatzaren 18an. **Umbrian** ailegatu zen New Yorkera Liverpooletik 1905eko martxoaren 13an. 1910/1920an itsasontzietako zerbitzari aritu zen Santa Claran, Santa Clara County, CA. Kalifornia eta Ekialdeko portuen arteko zeharkaldietan zebilen (Hong Kong, Filipinak...). Herritar amerikarra izatea lortu zuen.

BARINAGA, Juan José. Elantxoben jaioa, 1874an edo. 1904an ailegatu zen artzaintzan ibiltzeko. 1910ean Boisen(South 4th St.) bizi zen.



BASTERRECHEA, Ricardo "Richard". Elantxoben jaioa uztailaren 15ean. 1913an heldu zen New Yorkera. 1919an hiri horretako auzitegi batean eskatu zuen nazionalizazioa. 1923an, San Frantziskoko postetxean zeukan karta bat. 1929an San Frantziskon, CA, aritzen zen interprete lanetan.



BEOBIDE GONDRA, Estanislao (1869-1936). Elantxoben jaioa 1869ko maiatzaren 7an. Aita merkantzia-ontzietako kapitaina zuen. 11 urte zituela grumete(cabin boy) ibili zen Moore Mac Cormack eta Ward Lines-en ontzietan makinistaburua izan arte. 1887ko abuztuaren 10ean New Yorkera iritsi zen. Koipeztatzaile eta itsas-mekanikari zebilen orduan. 1900ean naturalizazioa eskatu zuen. Urte horretan, 91 Cherry Street-en zeukan bizitxea. 1910ean, Catherine Street-en bizi zen familiarekin. Geroago, James Street-en. 1924ko bueltan lehorreratu zen Hotel Belleclaire-n hartuz lana. Stationary engineeren lizentzia erdietsi zuen. 1927an, Andrew Carnegieren egoitzaren (91 St.) berokuntza sistemarekin arduratzeko kontratatu zuten. 1930an, Brooklyn-en bizi zen familia. Vicenta Bermeosolorekin ezkondu; Lino, Josefina, Elsie eta Eliasen aita. 1936an hil zen.

BILBAO, Francisco "Frank". Elantxoben jaioa 1887ko ekainaren 14an. 1917an Southern California Edison Co.rentzat egiten zuen lan. Huntingtonen bizi zen, Fresno County.

CAMPOS, Marcelo. Elantxoben jaioa 1878ko urtarrilaren 16an. 1918an artzain ibili zen A. Rogersonentzat Owyheen. Three Creek-en bizi zen.

CELAYA, Tomás. 1888an edo Elantxoben jaioa. Polonia Alegriarekin ezkondu. New Yorkera Le Havretik **Rochembeaun** heldu zen 1920ko apirilaren 17an. Simon Alegria koinatuarengana joan zen Boiseran.



CENDAGORTA-GALARZA ALDAMIZ-GOGEASCOA, JUAN. "JUAN ALDAMIZ", Elantxoben jaioa, Salt Lake Cityn artzain ibili zen.

CILUAGA, Angela Elantxoben jaioa, 1888an edo. New Yorkera **La Tourainen** iritsi zen Le Havretik 1912ko apirilaren 2an. Ahizpa Filomenarenera jo zuen Boiseran.



CILUAGA, Filomena. 1982ko martxoaren 14an Elantxoben jaioa. **Floriden** arribatu zen New Yorkera Le Havretik 1912ko urtarrilaren 11n. Urte horren abenduaren 23an ezkondu zen Boisen Ziortzako Joaquín Solozabalekin. Jose Luis, Rudolph eta Josefina ama. 1936an Mountain Homen bizi zen.

CILUAGA, Martín- 1897ko maiatzaren 7an Elantxoben jaioa. New Yorkera **Niagaran** Bordenetik heldu zen 1918ko apirilaren 23an. Arreba Filomenarenera jo zuen Boiseran. 1930ean, chefa zen arrainontzi batean Los Angelesen, CA. Santa Barbaran hil zen 1977ko otsailaren 22an.

DOBARAN ECENARRO, Daniel "Dan". 1892ko urtarrilaren 21ean Elantxoben jaioa. Jose Maria eta Eusebiaren semea. Emigratu aurretik, marinela izanik, Lekeition bizi zen. **Graf Waldersenen** ailegatu zen New Yorkera Boulogne-sur-Mer-etik 1909ko martxoaren 19an. Aita Jose Maria bizi izan zen Jordan Valleyra jo zuen. 1910ean Bengoechea anaientzat Riddle-n, Owyhee, ziharduen artzain. 1918an, Vandersen Bros.en ardiak jagoten zituen French-en, Payette County, ID.

EIZAGUIRRE ALDASOLO, Modesto. 1896ko urriaren 12an Elantxoben jaioa. 1910ean joan zen. 1918an, Ellison Ranching Co.rentzat egiten zuen behar Rebel Creek-en, Humboldt. 1930an Rebel Creek-en jarraitzen zuen arditan.

GARMENDIA, Santiago "Santi" (1894-1968). Elantxoben jaioa, 1894ko azaroaren 20an. 1909an heldu zen. 1917an Galo Arambarrentzat egiten zuen lan Shoshone-n, Lincoln. 1920an Gannett-en bizi zen, Blaine, non artzain zebilen. Euskeraz baino ez zuen berba egiten. 1930an, artaldeak jagoten zituen Hagerman-en, Gooding. Shoshone-n, Lincoln, hil zen 1968ko urtarrilean.

GOITIA, Antonio "Tony". 1886ko abenduaren 15ean Elantxoben jaioa. 1909an ailegatu zen. 1917an, San Frantziskoko itsasontzi bateko sukaldaria zen. 1930ean, dendaria (grocery) San Frantziskon. Rosekin ezkondu (1912an joana). Mary, Rose eta Tonyren aita zen.

MEJIAS, Casiano. Elantxoben jaioa 1885en edo. Arrantzalea zen hara joan orduko. **Philadelphian** heldu zen New Yorkera Cherbourg-etik 1907ko irailaren 14an. Winnemuccan bizi zen anaia Gervasiorenera abiatu zen. 1915ean bigarren bidaia egin zuen. Felisa Iraguenekin ezkondu.

ELANTXOBEKO KRISELA



2017 ko udan sortua

8. Zb



MEJIAS, Gervasio. Elantxoben jaioa. 1907an Winnemuccan bizi zen.

NABERAN, Pablo. Elantxoben jaioa, 1869an edo. Itsasgizona zen hara joan orduko. **Philadelphian** heldu zen New Yorkera Cherbourg-etik 1907ko irailaren 14an. Winnemuccara jo zuen. 1910ean, Summit-en aritu zen artzain, Malheur County, Oregon.

OTORICA, José. Elantxoben jaioa, 1886ko abuztuaren 28an. 1917an, artzain ibili zen Ray Corbusentzat Elmoren. Mountain Home-n bizi zen (c/o A. Bideganeta). 1928an bigarren bidaia egin zuen. Boisen bizi zen orduan.

OSTOLAZA, Ana. Elantxoben jaioa, 1897an edo. Bilbotik New Yorkera iritsi zen **Alfonso XIII**n 1916ko ekainaren 10ean. Neba Constantinoren bila joan zen Boiseran.



OSTOLAZA, Constantino. Elantxoben jaioa, 1890ko abenduaren 12an. **Saint Louisen** ailegatu zen New Yorkera Cherbourg-etik 1907ko azaroaren 3an. Boisen bizi zen bere lehengusina Escolástica Arriandiagarenera jo zuen. 1917an, Spring Valley Ranchen egiten zuen lan. Urte horren ekainaren 18an, Lekeitioko Lucíarekin ezkondu zen Boisen. Anastasio eta Valentinaren aita. 1939an baserritarra zen Boisen.

PALACIOS, Julián. Elantxoben jaioa, 1890ean edo. **Saint Louisen** ailegatu zen New Yorkera Cherbourg-etik 1907ko azaroaren 3an. San Frantziskora jo zuen.

REMENTERIA, Cosme. Elantxoben jaioa, 1895ean edo. **Chicagon** arribatu zen New Yorkera Le Havretik 1912ko martxoaren 12an. Shoshone-ra joan zen anaia Josegana.

REMENTERIA IDOYAGA, José. Elantxoben jaioa 1885ko uztailaren 6an. 1918an, Shoshone-n, Lincoln, jarduten zuen artzain.



RENERIA, Marcos (07/10/1871- 1947). Estatu Batuetara emigratu zuen. Liverpooletik irtenda, 19 urterekin, New Yorkera iritsi zen 1890eko martxoaren 30ean, eta handik Mendebaldera. Jordan Valleyn lotu zen, Malheur County, Oregon, ranchingera eta Lehen Mundu Gerran US Armyri saltzen zizkion zaldien hazkuntzara lotuta. Marcos Renteria ez zen inoiz ezkondu, eta 1929an amerikar nazionalitatea hartu zuen agiri ofizialaren arabera zera aitortuz: "It is my bona fide intention to renounce forever all allegiance and fidelity to any foreign prince, potentate, state, or sovereignty, and particularly to Alfonso XIII, King of Spain... I am not an anarchist; I am not a polygamist nor a believer in the practice of polygamy; and it is my intention in good faith to become a citizen of the United States of America and to permanently reside therein; SO HELP ME GOD".



RUIZ DE AZUA ZABALGOEASKOA, ANTONIO "Ogoñope" edo "Elantxobetar bat". Elantxoben jaioa 1904an. Kazetaria eta idazlea izan zen. 1938. urtean, Gerra Zibilean, erbesteko bidea hartu zuen eta Mexikora joan zen. Mexiko Hirian hil zen 1974. urtean.

TOTORICA, José Agustín. Elantxoben jaioa 1884ko abuztuaren 28an. 27 urtez egin zuen lan Boisen. 1947ko urtarrilaren 15ean zendu zen.

ULACIA, José. Elantxoben jaioa. 1907an Renon bizi zen.

ULACIA, Martín. Elantxoben jaioa, 1886an edo. Arotza izan zen emigratu aurretik. **Philadelphian** ailegatu zen Cherbourg-etik New Yorkera 1907ko irailaren 14an. Bere anaia Jose (Hotel Español) zegoen Renora zuzendu zen.

URIBARREN, Esteban. Elantxoben jaioa 1887ko azaroan. New Yorkera ailegatu zen **Oceanicen** Liverpooletik 1907ko martxoaren 21ean. Mac Dermitt-era joan zen, non Angel Aboitz lehengusua bizi zen. 1908an Mac Dermitt-en jarraitzen zuen. 1910ean Paradise-n zebilen artzain, Humboldt County. 1915ean bigarren bidaia egin zuen.

URIBARREN, Segundo. Elantxoben jaioa 1894ko ekainaren 29an. 1918an Humboldt-en bizi zen.

URIBARREN, Serapio. Elantxoben jaioa, 1885ean edo. Marinela zen hara joan aurretik. Le Havretik New Yorkera **Noordamen** heldu zen 1908ko apirilaren 8an. Mac Dermitt-era jo zuen anaia Estebanengana.



YTURRASPE, Florencio "Lawrence" (Eturaspe). Elantxoben jaioa 1873ko otsailaren 23an. Jose Antonio eta Tiburcia Ehandiaren semea. 1888an ailegatu zen Valentín Aguirrerekin lanean zebilen itsasontzi berean. 1896an, Mundakako "Genevieve"rekin ezkondu zen. Hamar ume eduki zituzten. 1900-1920an suhiltzailea izan zen. Oliveren eta Roosevelt St.en bizi izan zen. 1925ean, makinistaburu ziharduen Iselin Buildingen, Wall Street-en. Bere seme Dionisio, denboraldi batez nabigatzen ibili ondoren, New York hiriko polizian sartu zen.



YTURRIOZ AREGO, LEONOR. Elantxoben jaioa 1898an edo. Manuel Yturrioz Meaurio-arrantzalea-eta Emilia Arego Jauregiren (1895eko galarrenan hon doratutako "San Ignacio de Loyola" txalupan hildako Ignacio Arego patroia-aren eta Ignacio Arego arrantzalearen alaba eta arreba zen Emilia) alaba nagusia. Getxoko Felix Arrutirekin ezkondu zen eta Ofelia eta Olga (Elantxoben hil zen ume-umetan) bikiak, Felix eta Rosario seme-alabak izan zituzten. Mexikoko Veracruz hirian bizi izan zen eta hantxe hil zen.



ZABALA, Eusebio. Elantxoben jaioa 1878ko abenduaren 15ean. New Yorkera heldu zen Mexiquen Bordeletik 1909ko ekainaren 23an. Natalia Omageascoarekin ezkondu. 1945ean sukaldaria zen Boisen, ID.

ZARACONDEGUI ARTEAGABEITIA, Juan. Elantxoben jaioa. 1909an DeLamar-en, ID, bizi zen.

ZARACONDEGUI ARTEAGABEITIA, Pedro. Elantxoben jaioa, 1879an edo. New Yorkera heldu zen **SS St. Louisen** Cherbourg-etik 1907ko urriaren 5ean. Anaia Juan bizi zen DeLamar-era, ID, jo zuen. 1918an Verdin, AZ, egiten zuen lan; 1923an, berriz, San Diegon.

ELANTXOBEKO KRISELA



2017 ko udan sortua

8. Zb

AMERIKARA NOA

SEME BAT

Amerikara noa nere borondatez,
hemen baino hobeto izateko ustez;
aspertua bai nago hemengo izatez,
adio, aita eta ama, ondo bizi bitez.

AITA

Lehenago ere seme bat badet Amerikan,
orain dela sei urte joana hemendikan;


baldin topatzen badek haren biderikan,
esan hakiok aita bizi dala oraindikan.

BESTE SEMEA

Kafia hartutzen det egunian bi aldiz,
baita pasiatu ere nik nahi aina zaldiz;
jan edanaren faltik ez, osasuna berriz...
Aita bizimodu hau Elantxoben izan balitz.



"Elantxobetarrak Kepa Deunaz Mejicon" dio mahaiburuko kartelak



Ameriketara joan nintzan
zentimorik gabe
handik etorri nintzan maitia
bost milioien jabe.
Txin, txin, txin, txin,
diruaren hotsa,
harexek ematen dit maitia
bihotzian poza. (Bis)

